

GIZARTE LARRIALDIKO EGOERETARAKO OSTATUA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Herritar guztiak > Berehalako arreta krisi-egoeretan

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Larrialdi batengatik **aldi baterako ostatua behar duten pertsonak** edo familiak.

Kostua

Koordainketa zerbitzua, eskatzailearen egoera ekonomikoaren arabera.

Baldintzak

Bat ere ez, **larrialdi sozialeko egoeraz** harago.

Zertan datza?

Gizarte-larrialdiko egoera dela eta, etxebizitza eskuratu ezin duten pertsona edo familiei ostatua eskaintzen die. Pisuak etxebizitza-eraikin arruntetan kokatu ohi dira. Aldi baterako zerbitzua da, 4 hilabeterainokoa, luzatzeko aukerarekin. Intentsitate txikiko baliabidea da, eta ez du langile propiorik. Hala ere, behar izanez gero, kanpoko laguntza aktiba daiteke.

Norentzat?

Larrialdi batengatik **aldi baterako ostatua behar duten pertsonak** edo familiak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Gizarte-larrialdietarako preskripzio teknikoa baino ez da behar; **zuzeneko sarbideko zerbitzua da**, hau da, oinarrizko gizarte-zerbitzuak aldez aurretik ezer egin gabe eskura daiteke zerbitzua.

Non eska dezaket zerbitzua?

Joan zaitetz zure auzo edo udalerriko **Gizarte Larrialdietako Zerbitzuetara** edo **Oinarrizko Gizarte Zerbitzura**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)